

Irungo Kirolaren Patronatuak antolatu eta kirol enpresa pribatuek kudeatutako ikastaroetan hizkuntza normalkuntzarako neurri eta irizpideak aurrera eramateko plangintza

BALANTZE TXOSTENA

Donostia, 2011ko urtarrila.

Beraz, 2006tik hona lanean jarraitu dutenak 3 izan dira. Datuokin ikusten da aldaketa nabariak egoten direla euren jarduna kiroldegietako ikastaroak kudeatzera bideratzen duten enpresetako langileen, batez ere monitoreen artean.

2.2.- DIAGNOSTIKO EGUNERATUA

Txostenaren atal honetan zehar 2009 urteko landa-lanak emandako emaitzak azaltzen ditugu, monitoreei dagokien informazioa batetik eta baita kirol taldeei dagokiena ere. Datuak aztertzerakoan kiroldegiaren araberako gurutzaketa erabiltzea izan da jarraitutako irizpidea eta testuetan 2006 urteko datuekiko alderaketa bat egiten da datuok konparagarriak direnean.

2.2.1.- Monitoreak

Unibertsoaren abiapuntuko zerrenda kiroldegiari jarraiki

	Artaleku	Azken Portu
Monitoreak	23	21
Harrera	-	1
Mantentze-lanak	-	3
Sorosleak	2	1
GUZTIRA	25	26

Azterketan parte hartu dutenak kiroldegiari jarraiki

	Artaleku	Azken Portu
Monitoreak	17	17
Harrera	-	1
Mantentze-lanak	-	3
Sorosleak	2	1
GUZTIRA	19	22

Iturria: Siadeco, 2009.

Landa-lana 2009ko maiatzean hasi genuenean guztira 51 pertsona identifikatu genituen. Horietatik 41ek parte hartu dute ikerlanean eta parte hartu dutela esaterakoan datu guzti guztiak eskuratu ditugula esan nahi da. Beste 10en kasuan, 5 ezin izan ditugu lokalizatu datu bilketaren garaian eta irailean, 2. saiakera egiterakoan jadanik ez zuten kiroldegiaren lan egiten. Beste 5en kasuan telefonozko harreman izan dugu irailean eta gutxienez planaren berri eman zaie eta euskara ikastaroen interesagatik galdetu.

Esan 2006ko datu bilketa egin zenean 23 monitore zeudela guztira eta 18k hartu zutela parte galdetegiari erantzuten.

a). Azterketan parte hartu duten monitoreen euskara-maila

Kiroldegia	Euskara maila									
	Batere ez		Zerbait		Ongi		Oso ongi		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Azken Portu	3	13.6	6	27.3	8	36.4	5	22.7	22	100.0
Artaleku	1	5.3	7	36.8	8	42.1	3	15.8	19	100.0
GUZTIRA	4	9.7	13	31.7	16	39.1	8	19.5	41	100.0

Iturria: Siadeco, 2009.

Langileen euskara maila aitortua aztertuz, Azken Portu kiroldegian altuxeagoa dela esan behar, alde nabarmenik gabe, hori bai. “Ongi” edota “oso ongi” egiten dutela adierazi dute Azken Portuko langileen %60k inguru eta Artalekuko %58k. Hala ere, euskara “ezertxo ere” egiten ez duten langileak gehiago dira Azken Portun (%13) Artalekun (%5) baino.

Datuok ezin litezke zuzenean alderatu 2006koekin erantzunen tipologia ez zelako berdina izan, baina gogoratu lortutako emaitzak ondorengoak izan zirela: asko %27,8, nahikoa %50,0, gutxi %16,7 eta batere ez %5,6.

b). Azterketan parte hartu duten monitoreen euskararekiko jarrerak eta motibazioak

		Erabat prest	Nahiko prest	Ez oso prest	Ez batere prest	Dagoeneko egiten dut	Ez dagokio	GUZ-TIRA
AZKEN PORTU	Egun erdaraz bakarrik emandako ikastaroetan euskarari sarbidea ematen hasteko (ongi etorri eta agurrak)	9.1	13.6	13.6	-	45.5	18.2	100.0
	Taldean gehienak euskaldunak ez direnean, talde osoari zuzendutako komunikazioetan erdara erabili arren, euskaldunak direnekin banakako komunikazioetan euskaraz egiteko	9.1	18.2	13.6	4.5	36.4	18.2	
	16 urte arteko haur eta gazteekin osatutako taldeetan euskaraz egiteko	13.6	22.7	4.5	4.5	22.7	31.8	
ARTALEKU	Egun erdaraz bakarrik emandako ikastaroetan euskarari sarbidea ematen hasteko (ongi etorri eta agurrak)	26.3	15.8	5.3	-	47.4	5.3	100.0
	Taldean gehienak euskaldunak ez direnean, talde osoari zuzendutako komunikazioetan erdara erabili arren, euskaldunak direnekin banakako komunikazioetan euskaraz egiteko	31.6	21.1	10.5	-	31.6	5.3	
	16 urte arteko haur eta gazteekin osatutako taldeetan euskaraz egiteko	36.8	21.1	-	-	10.5	31.6	

Iturria: Siadeco, 2009.


Orokorrean eta datu adierazgarrienen alderaketa eginda 2006 urtearekiko:

- Kirol ikastaroetan euskarari sarbidea (ongi etorri eta agurrak) ematearen aldekoak %94,5 izan ziren orduan. Gaur egun, "erabat prest" eta "nahikoa prest" eta "dagoeneko egiten dut" erantzunen batuketan eginda, %68,2koa da emaitza da Azken Potun eta %89,5koa Artalekun.
- Talde osoarentzat diren azalpenetan gaztelania erabili arren banakakoetan euskaldunekin euskara erabiltzearen alde azaldu ziren 2006an monitoreen %83,3. Gaur egun, Azken Portun aldeko jarrera hori %63,7an kokatzen da eta Artalekun %84,3an.
- 16 urte artekoentzat antolatutako ikastaroetan euskara erabiltzearen alde azaldu ziren 2006ko ikerlanean monitoreen %88,9. Gaur egun, Azken Portun aldeko jarrera hori %59an kokatzen da eta Artalekun %68,4an.

Kontuan izan behar da alderaketa hauek egiterakoan, "ez dagokio" erantzun modalitateak hartzen duen pisu nabarmena. 16 urtetik beherako gaztetxoak ez dituzten kirol monitoreak daude multzo horretan, berez 16 urte arteko haur eta gaztetxoekin osatutako taldeetan euskaraz egiteko aldeko jarrera izan edo ez.

c). Azterketan parte hartu dutenek euskara ikastaroengatik adierazitako interes maila

Azterketan parte hartu dutenek euskara ikastaroengatik adierazitako interes maila



Iturria: Siadeco, 2009.

Aurrez aurre elkarrizketatutako kiroldegietako 41 langileen %46ak adierazi du euskara ikastaroetan izen emateko interesa eta asmoa. Ezezko garbia aldiz, 10etik 4k eta zalantza adierazi dutenek emandako argudio nagusia ikastaroen ordutegi antolaketa izan da.

Ondorengo taulan euskara ikastaroetan izen emateko interesari buruz galdetuta baiezkoa edota zalantza adierazi duten monitoreei dagokien informazioa ematen da, euren kirol espezialitatea eta euskara maila aitortua ere zehaztuz.

Monitoreen hainbat adierazpen

- “Me interesa mucho el tema de los cursos siempre que pueda aprender cosas útiles y provechosas. No hablo una palabra de euskera y quiero empezar de 0”
- “EGA ateratzeko ikastaroetan hasi nintzen duela 3 urte. Batez ere ahozkotasuna landu beharra daukat. Lanean goiz eta arratsaldean hasi nintzenez ordea, euskara ikastaroak utzi behar izan nituen”
- “Me he apuntado junto con otro monitor a los cursos organizados por Irun Iruten en Artaleku. Nos exigen cierto nivel de conocimiento para apuntarnos y además tendremos que dejar de lado algunas horas de trabajo”
- “Yo ya voy al euskaltegi. Veo interesante el tema de los cursos pero quiero seguir en el euskaltegi para mejorar bien mi nivel de euskera y poder hablarlo en la calle. Por el momento no puedo llegar a todo, por lo que no me apuntaré a los cursos organizados en el polideportivo”
- “Ikastaro baten hasieran galdetzen dut jendeak euskaraz badakien, eta beti dagoenez erdaldunen bat, klaseak erdaraz ematen ditut”
- “Helduekin ez naiz ausartzen euskaraz egitera baina gazte eta hurrekin bai”
- “Yoga ikastaroak ematen ditut nik eta taldeetan gehienak erdaldunak dira. Euskara dakitenekin zuzeneko komunikazioa dudanean euskaraz egiten dut baina azalpen orokorrak beti erdaraz. Erdaldunei euskaraz egitea ez dut ongi ikusten”
- “Trabajo sobre todo con niños y soy consciente de que la mayoría sabe euskera. Yo sí que me siento limitado para hablarlo”
- “Euskaraz kiroldegian bakarrik egiten dut baina orokorrean nahiko ongi moldatzen naiz. Kiroldegitik kanpo ez dut erabiltzen, lagunartean eta ohiturarik ez daukagulako”
- “Tengo que pensar antes de hablar; urduri jartzen naiz”
- “La empresa se debería hacer cargo de este tipo de cursos, que deberían ser dentro de las horas de trabajo. Fuera del horario de trabajo la gente no se animará. Si de verdad la empresa está implicada con este tema, los cursos deberían ser dentro del horario de trabajo”
- “Me parece muy bien que se proteja y potencie una lengua minoritaria, pero la realidad aquí en Irun es bastante difícil. Yo, en mi caso, aunque supiera hablar euskera no podría utilizarlo siempre durante los cursillos porque un 80% de los asistentes no lo domina”
- “Ikastaroak hasten direnean galdetu egiten diet partaideei hizkuntzaren alderdiarengatik. Orain arte izan ditudan talde guztietan erdara nagusitu da. Horregatik erdaraz ematen ditut ikastaroak”
- “Euskara maila ona daukat baina ohituraz, kiroldegiko langileekin (ia guztiekin) erdaraz egiten dut. Nire ustez euskaraz egitea bi aldiz egitea da”
- EGA ateratzeko ikastaroetan interesa adierazi du. Lan orduetan, enpresak ordainduta izango balitz askoz hobeto. Bere ustez enpresak ez dauka barneratua euskararen kontu hau. “Ez digute esaten euskaraz egitea garrantzitsua denik. Klaseak ongi eman behar ditugula baina besterik gabe...”. Bere ustez baita ere, 16 urtetik beherako gazteekin lan egiten dutenek nahitaezkoa izan behar lukete euskara jakitea. “Eta hori hemen ez da gertatzen”
- “Entiendo el euskera pero no me gusta hablarlo; es más útil utilizar un idioma que todo el mundo entienda y además considero una falta de respeto hablarlo delante de alguien que no sabe”
- “Si hace falta hablar lo hablo, pero mi motivación es 0. Si en el grupo hay una persona que no sabe me parece mal, una falta de respeto hablarlo. Cuando a una persona le digo algo en el tú a tú, quiero que el resto también se entere”
- “Este Plan para el euskera, bien... ¿y para el inglés qué? Si hace falta dar las clases en inglés pues también se da, ¿no?”

2.2.2.- Kirol taldeak

Kiroldegietako ikastaroetan lanean dabiltzan hezitzaileekin aurrez-aurre izandako elkarrizketetan euren ardurapean zituzten taldeei buruzko hainbat galdera egin zitzaizkien datu-bilketa garaian. Guztira 171 kirol talderen informazioa eskuratu da, 81 igeriketako ikastaroak jasotzen dituzten taldeak izanik eta gainontzeko 90ak gimnastika-mota desberdinetako taldeak direlarik.

Igeriketako ikastaroetako taldeak			
	Espezialitatea	Talde kopurua	
IGERIKETA	Haurrak (10 urtetik beherakoak)	Dordoka	30
		Igela	10
		Olagarroa	12
		Marrazoa	3
		Pinguinoa	3
		Ezpata arraina	1
		Elbarrituak	6
	Helduak (10 urtetik gorakoak)	Helduak	12
		Aquaerogym	2
		Aquasalud	2
GUZTIRA		81	

Iturria: Siadeco, 2009

Igeriketako 81 taldeetatik 16 (%19.7) daude 10 urtez gorako pertsoenez osatuak, eta gainontzeko 65 taldeetan 10 urtetik beherako hurrek jarduten dute.

Gimnastika-mota desberdinetako taldeak		
	Espezialitatea	Talde kopurua
GIMNASTIKA-MOTA DESBERDINAK	Pilates	27
	Mantenimendu gimnasia	20
	Aerobic	15
	Cycling	12
	Yoga	5
	Master gym	3
	Dantza latinoak	2
	Ciclo indoor	2
	Psikomotrizitatea	2
	Jazz (haurrentzat)	1
	Stretching	1
	GUZTIRA	

Iturria: Siadeco, 2009

Gimnastika-mota ezberdinak praktikatzen dituzten 90 talderen inguruko informazioa eskuratu da baita ere. Horietatik bi talde besterik ez daude hurrez osatuak.

➤ **Taldearen tipologia adinari eta kiroldegiari jarraiki**

Taldeetako partaideen batezbesteko adinaren arabera sailkapena adierazten da beheko taulan. Guztirako emaitzak aztertuta 41-50 urteko pertsoez osatutako taldeek hartzen dute pisurik handien, %25ekoa hain xuxen ere; bestalde 61 urtez gorako partaideez osatutako taldeak dira Irungo Udala kiroldegietan presentziarik baxuena dutenak.

Adina		KIROLDEGIA ETA TALDE KOPURUA					
		ARTALEKU		AZKEN PORTU		GUZTIRA	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Haurrak	1-5	15	17.6	18	20.9	33	19.3
	6-10	16	18.8	13	15.1	29	17.0
Gazte-helduak	11-20	7	8.2	3	3.5	10	5.8
	21-30	9	10.6	-	-	9	5.3
	31-40	7	8.2	27	31.4	34	19.9
	41-50	25	29.4	18	20.9	43	25.1
	51-60	2	2.4	5	5.8	7	4.1
	61 +	4	4.7	2	2.3	6	3.5
GUZTIRA		85	100,0	86	100.0	171	100.0

Iturria: Siadeco, 2009

Kiroldegiaren arabera, adin-multzoen banaketan aldeak nabari ditugu. Izan ere, 21-30 adineko pertsoez osatutako talderik ez dago bat ere Azken Portun eta aldiz, Artalekun % 10eko pisua hartzen dute; eta 31-40 urteko taldeen presentzia nabarmen altuagoa da Azken Portun (%31) Artalekun baino (%8).

➤ **Taldearen euskara ezagupen maila kiroldegiari jarraiki**

Kirol taldeen batezbesteko euskara gaitasuna estimatzea eskatu diegu kirol monitoreei eta honatx emaitzak guztira eta kiroldegiaren arabera.

Euskararen ezagupen maila	ARTALEKU		AZKEN PORTU		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
< %25	35	41.2	29	33.7	64	37.4
%25 - %49	15	17.6	11	12.8	26	15.3
%50	10	11.8	9	10.5	19	11.1
%51 - %75	9	10.6	7	8.1	16	9.3
> %75	13	15.3	22	25.6	35	20.5
Ed/Ee	3	3.5	8	9.3	11	6.4
GUZTIRA	85	100.0	86	100.0	171	100.0

Iturria: Siadeco, 2009

Kirol monitoreek egindako estimazioen arabera, euskararen ezagupen maila %25aren azpitik kokatzen da 3 taldetatik 1ean pasatxo (%37) eta euskararen ezagupen maila %75a baino altuagoko kasuak %20an kokatzen dira.

Kiroldegiaren arabera, alde nabarmenena azkena aipatutako tipologia (euskararen ezagupena %75 baino gehiago) dago; izan ere, Azken Portun %25eko pisua hartzen duen bezala, Artalekun %15ean kokatzen da portzentaia.

Hartzaileen euskara mailaz monitoreek egindako estimazioen arabera, esan daiteke Azken Portu kiroldegiko erabiltzaileen euskara gaitasuna altuagoa dela Artalekuko erabiltzaileen artekoa baino.

a). Euskararen erabilera ARTALEKU kiroldegiko taldeetan

	Lehen hitza irakasleak		Irakasle-taldekideen artean		Taldekideen artean	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz	33	38.8	51	60.0	51	60.0
Gaztelaniaz > euskaraz	2	2.4	13	15.3	26	30.6
Gaztelaniaz = euskaraz	16	18.8	11	12.9	3	3.5
Euskaraz > gaztelaniaz	1	1.2	7	8.2	3	3.5
Beti edo ia beti euskaraz	33	38.8	2	2.4	2	2.4
Ez dagokio	-	-	1	1.2	-	-
GUZTIRA	85	100.0	85	100.0	85	100.0

Iturria: Siadeco, 2009

Euskararen erabileraren estimazioa egiteko eskatu zaie baita ere monitoreei, talde bakoitzeko jardunean ondorengo komunikazio egoera ezberdinak aztertuz: irakasleak egindako lehen hitza, irakasle-taldekideen artekoa eta taldekideen artekoa soilik.

Artaleku kiroldegiko ikastaroetan irakasleek egindako lehen hitza beti edo ia beti euskaraz da aztertutako kirol taldeen %39an; maila berean kokatzen da, %39an hain xuxen ere, irakaslearen lehen hitza beti edo ia beti gaztelaniaz jasotzen duten taldeen portzentaia. Orokorrean kopuru guztiak aztertuta, lehen hitzari dagokionean, esan genezake euskara eta gaztelania presentzia berdintsua dutela.

Irakasle eta taldekideen arteko komunikazioak aztertuta, aldiz, gaztelania gehiago edo ia beti erabiltzen da harremanen %75ean eta euskara ia beti edo gehiago harremanen %10ean. Taldekideen arteko harremanak aztertuta oraindik ere nabarmenagoak dira bi hizkuntzen presentzian ematen diren aldeak.

b). Euskararen erabilera AZKEN PORTU kiroldegiko taldeetan

	Lehen hitza irakasleak		Irakasle-taldekideen artean		Taldekideen artean	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz	25	29.1	51	59.3	47	54.7
Gaztelaniaz > euskaraz	5	5.8	18	20.9	18	20.9
Gaztelaniaz = euskaraz	5	5.8	8	9.3	8	9.3
Euskaraz > gaztelaniaz	9	10.5	2	2.3	5	5.8
Beti edo ia beti euskaraz	42	48.8	7	8.1	6	7.0
Ez dagokio	-	-	-	-	2	2.3
GUZTIRA	86	100.0	86	100.0	86	100.0

Iturria: Siadeco, 2009

Azken Portun, kirol monitoreen lehen hitzerako hizkuntza aztertuta, euskara nabarmen gailentzen zaio gaztelaniari, euskara gehiago edo ia beti harremanen %59an kokatzen da eta gaztelania gehiago edo ia beti harremanen %35ean. Irakasle eta taldekideen arteko komunikazioak aztertuta, bi hizkuntzek hartzen duten pisua ez da gehiegi aldentzen Artalekuko kiroldegari buruz aipatuekiko. Kopuruak antzekoak dira eta aldi berean Artalekukoak baino euskararen “aldekoagoak” taldekideen arteko harremanak aztertuz gero.

c). Talde barruan euskararen erabilera handiagotzeko bideak eta beharrak

	ARTALEKU		AZKEN PORTU		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Irakaslearen ezagupena hobetu	20	18.4	47	35.3	67	27.8
Hartzailearen ezagupena hobetu	26	23.8	39	29.3	65	26.8
Hizkuntzarekiko ohiturak eta jarrerak aldatu	60	55.1	41	30.8	101	41.7
Besterik	3	2.7	6	4.6	9	3.7
GUZTIRA	109	100.0	133	100.0	242	100.0

Iturria: Siadeco, 2009

Kirol monitoreei galdetu zaie kirol taldeetako bakoitzean euskararen erabilera handiagoa izateko modu eta beharreatatik. Jasotako emaitza orokorrak aztertuta, taldeetako partaide guztien hizkuntzarekiko ohiturak eta jarrerak aldatzea da monitoreek adierazten duten beharrik nabarmenena, %42arekin. Bestalde, irakaslearen euskara ezagupena hobetzea da taldeen %28en kasuan atzemandako behar nagusia eta gertutik jarraitzen dio, %27arekin hartzaileen ezagupena hobetzeko beharrak.